

ezagutzen al
duzu Donostia?

Juanasoro

Juanasoro Donostiako Udalbarrutiko hegomen-debaldeko muturrean dago, Zubietako komunitate zaharrean, *Irisasiko* mendi ospetsuen mugetan. *Juanasorora* hurbiltzeko modurik onena Zubietako plazatik hasia dugu; handik Zubietako erriberetan barrena *Artzabaleta* base-ri politera heldu eta ezkerreko bidea hartuz mendian gora abiatu behar da *Olaikora* arte. Hemendik segidan, *Juanasorora* iritsiko gara. Toponimoak garbi adierazten duenez, *Juanasoro* *Zubieta*-mendietako antzinako -agian historiaurreko- sarobe edo saroi bat izan zen. Paraje honetan dagoen trikuharriak hori adierazten digula dirudi.

Gaur, dena dela, barruti hauek otadi eta sasi bihurtuak daude. *Irisasi* mendiak Usurbilgo barrutikoak dira administratiboki, baina antzinan Orreagako Monastegiaren



Juanasoroko mugarri zaharra.



Juanasoroburuako mugarria

jabegoa ziren, XIX. mendaren erdialdera desamortizazio legeekin Estatuaren eskuetara pasa ziren arte, *Zubieta*-mendiek *Irisasiko*ekin *Juanasoron* egiten dute muga hain zuzen ere.

Leku honetan agertzen diren mugarri zaharrak horren lekuko dira. Zinez ederra da *Juanasoroko mugarria* deitua (gaur, hau, Usurbilgo Udaletxean dago zinpetua). Harearriko mugarri honek Orreagako kolegiataren jabego ikurrak (gurutzea eta artzapezpiku-makulua) grabatuta ditu. Agian Donostiako mugetan aurki dezakegun mugarririk zaharrena da. Mereziko luke kopia bat egiteak eta orijinala zegoen lekuan jartzeak. *Juanasoroburu*a deituriko lekuan dagoen mugarria -harearrikoa hau ere- ondorengoa da. Aipatutako bi mugarriak Donostia eta Usurbil arteko herri-mugarriak dira.

*Sarobe, saroi edo korta deitzen zaio artzai barrutiari. «Eguzkiarri», «Autsarri» edo «Artamuarri» deituriko mugarri berezi batetik neurtzen ziren barruti hauek. Biri-bilak dira Gipuzkoan eta Bizkaian; Nafarroan berriz, karratuak.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: JOSU TELLABIDE

Ezeiza E T X E A
TOLOSAKO EZEIZA TEILA ETA ZIGARROTZOAK
TOLOSA

P. GOROSABEL, 34 - TFNOA.: 65 51 61
SAN FRANCISCO, 8 - TFNOA.: 65 19 16

PERFUMERIA
QUKERA
OPARIAK

Matia 15 • ANTIGUA • ☎ 21 69 62